

Aldundiak 2,6 milioi euroko inbertsioa egingo du Laudioko Lamuza jauregia zaharberritzeko

Teilatua eta leihoak berrizatu eta fatxadak zaharberrituko ditu, eta biomasa bidezko berotze sistema berri bat instalatuko du

Lanak datorren udazkenean hasi, eta 2020. urtearen amaieran bukatuko dira

Gasteiz, 2019ko uztailaren 15a.- Arabako Foru Aldundiak datozen hilabeteetan 2,6 milioi euroko inbertsioa egingo du Lamuzako kultura etxea edo jauregia, Laudioko Lamuza parkean dagoena, zaharberritzeko. Inbertsio horri esker, teilatua eta leihoak berrizatu eta fatxadak konponduko dira, eta biomasaz elikatutako berotze sistema berri bat instalatuko da.

Foru Gobernu Kontseiluak gaur esleitu dizkio Goitu Eraikuntzak SL enpresari obrak, 2,6 euroko zenbatekoaz, eta 12 hilabeteko gauzatze epearekin. Datorren udazkenaren hasieran hasiko dira obrak; hortaz, 2020. urtearen amaieran bukatuta egongo dira.

Lamuza jauregia zaharberritzeko 2,6 milioi euroko inbertsio hau gehitu egiten zaio joan den legegintzaldian zehar Musika Etxea, Kasinoa eta Laudioko erdialdeko gune horretako lorategietan dauden urmaela eta burdina forjatuzko pergola berregokitzeko eta zaharberritzeko erabilitako 3,1 milioi euro pasari. Guztira, ia sei milioi euro hitzartu dira.

Lamuza jauregia elkarri itsatsitako zenbait eraikinek osatzen dute. 1879 eta 1930 artean eraiki ziren Urkixoko markesen egoitza izateko, XVIII. mendeko jatorrizko etxe barroko batetik abiatuta. Eraikuntza hau, zeina Arabako Foru Aldundiaren jabetzakoa baita, erabilerarako laga zitzaion 1976an Laudioko Udalari, eta momentu hauetan narriaturik dago bere eraikuntza elementuetako askotan.



Eraginkortasun energetikoa

3.500 metro koadro baino gehiagoko eraikuntza horretan esku hartzeko proiektuak jasotzen du kanpoko hormak zaharberritu behar dela multzoaren irudia lehengoratzeko, bere fatxaden egungo egoera hobetuz, narriatutako aldeetan jardunak eginez eta elementu apaingarrietan arreta berezia ipiniz. Kalteak dituzten elementuak jatorrizko material eta geometria berdinekin berreraikiko dira.

Halaber, kanpoko arotzeria berritu edo haren ordeztu beste bat jarriko da, zein den haren kontserbazio egoera. Proiektuan jasotzen da zuzeko leihoak zaharberritzea hori posible eta egokia denetan, betiere ganbera isolagarriaren beira bikoitze berriak ipiniz eta osorik mantenduz balkoiak ateak, eskulekuak eta heldulekuak, burdinazko barruko ateak, gontzak etab..

Eraikuntza multzoko teilatuek narriadura asko ageri dituzte eta ez daukate isolamendu termikorik. Horren ondorioz, eraikinak energia eskakizun handiagoa du. Zaharberrikuntza obrek arazo horiek konponduko dituzte oraingo zeramikazko teilaren ordeztu auzko ezaugarriak dituen teila berria ipiniz eta etengabeko isolamendua barnean hartuz, tximinia eta pinakuluen motibo geometrikodun adreiluen jatorrizko diseinuari eutsita.

Arabako Foru Aldundiak Lamuza jauregia beroa sortzeko instalazio berri batez hornituko du, eraginkortasun energetikoa hobetzeko, energia iturri berriztagarria eta ingurunerik hurbilenean ugaria dena erabiliz, biomasa alegia. Gaur egungo gasolio galdaren lekuan, eraginkortasun handiko bi galdara berri ipiniko dira, bertako baso sailetako biomasaz baliatuko direnak erregai berriztagarri eta hurbil moduan.

Galdara gela berria eta biltegitze siloa, jauregitik urrun dagoen esparru bakartu batean jarriko dira. Horrela, posible izango da geroan hornikuntza beste eraikuntza batzuetara zabaltzea, jauregiaren balioztatzea oztopatu gabe.

Foru Aldundiak prestakuntzako 147 ikastaro eskainiko ditu enpresek eskatutako arloetarako.

Langabetuen lanbide birziklapena eta laneratzea errazteko

Arabako Foru Aldundiak prestakuntzako 147 ikastaro jarriko ditu aurten arabarren eskura, landunen eta, batez ere, langabetuen lanbide prestakuntza hobetzeko. Ikastaro horietarako, 1.680 plaza egongo dira guztira.

Gaur, Foru Gobernu Kontseiluak enplegurako prestakuntzaren urteko deialdia onetsi du, 713.000 euroko aurrekontuaz hornitua. Baliabide horiei esker, 147 ikastaro emango dira, enpresa arabarrek beren langile beharrak asetzeko eskatzen dituzten arloei buruz.

2019ko prestakuntza eskaintzak 35 ikastaro gehiago eta 430 plaza gehiago izango ditu 2018koaren aldean.

Programa honen ezaugarrietako bat da sartzeko erraza dela, eta, horretarako, ikastaroen %80ren matrikula erabat dohainik da. Gehienak datorren irailetik aurrera hasiko dira ematen, eta haien iraupena 10 orduetik 150 ordura bitartekoa izango da (ikastaroen erdia, gutxi gorabehera, 100 ordu ingurukoa).

Ikastaroak Arabako enpresek eskatzen duten arloei buruzkoak izango dira, eta, izan ere, deialdiaren oinarrietan jasotakoaren arabera, balio handiagoa emango zaie Arabako ekoizpen sektorearekin zerikusia duten eta arlo hauei loturiko prestakuntza sustatzen duten gaiei: industria sektorea (ekoizpena, muntaketa, biltegiatzea, logistika eta abar), energia eraginkortasuna eta ingurumena.

Hona adibide batzuk: soldadura (karbono-altzairua, herdoilgaitza eta aluminioa); fabrikazio inteligenteko teknologia industrialak; instalazio fotovoltaikeen muntatze eta mantentze lanak; ibilgailu hibrido eta entxufagarriak; zibersegurtasuna; automaten programazioa; robotika aurreratua; 3Dko inprimaketa, molde industrialetara bideratua; etxeko laguntza mendeko pertsonen.

Eskaintza eskualdeetan

Arabako Foru Aldundia ahaleginak egiten ari da eskaintza hau lurralde osora zabaltzeko eta ez bakarrik bere hiriburura, kontuan izanda Gasteizek biltzen duela prestakuntza eskaintza gehiena. Ikastaroen heren bat herrietan eskainiko da, zehazki, Amurrion, Laudion, Murgian, Langraiz Okan, Agurainen, Oionen, Arespalditzan, Ribabellosan eta Ozetan.

Gainera, herri horietara helduko den prestakuntza eskaintza kuadrilla bakoitzak bere enpresen beharretara ondoen egokitzen diren arloei buruz egin dituen txostenetan oinarritu da.

Aurten ere, deialdiaren oinarrietan lehentasuna emango zaie gutxieneko langabe kopuru baten parte hartzea bermatuko duten ikastaroei eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorraren aldeko ekintza zehatzak egiteari. Zehazki, guztiz maskulinizatuta dauden sektore edo jardueretako ikastaroetan emakumeen parte hartzea sustatzen duten proposamenak balioetsiko dira, eta alderantziz egiten dutenak ere bai.

Ikastaroen gaiak, Arabako zein herritan emango diren, ordu kopurua eta prestakuntza zentroa jakiteko informazio guztia aste honetan egongo da eskuragarri [www.araba.eus web orrian](http://www.araba.eus/web/orrian).

Arabako Foru Aldundiak enplegua sortzeko eta langabeziaren aurka egiteko estrategiaren barruan kokatzen da. Estrategia horrek hiru ardatz ditu: langabetuen kualifikazioa, laneratzea erraztearren; kontratazio mugagabea sustatzea, enpleguaren kalitatea hobetzeko; eta Enpleguaren Programa Berezia langabetu gehien duten udalerrietan.

Foru Ogasunak Haraneko udalerriko katastro balioak eguneratuko ditu

Katastro balioak % 2,07 igoko dira batez beste, baina OHZ dela-eta ordaindu beharreko azken prezioak udalak onesten duen zerga tasaren arabera kalkulatuko dira

Udalerriko balio berriak 2020an jarriko dira indarrean

Arabako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak onetsi du Haraneko udalerriko katastro balioztapenen txosten berria. Horrela, lurzorua eta eraikuntzaren balio berriak, ondasun higiezinaren gaineko zergari (OHZ) atxikiak, 2020an jarriko dira indarrean eta egungo balioak ordeztuko dituzte, 2004tik indarrean daudenak, alegia.

Arabako Ogasunak egin duen eguneratzearen ondorioz, katastro balioak % 2,07 igoko dira batez beste, udalerrian lurzorua balioaren jaitsierak ez duelako guztiz konpentsatu eraikuntzaren balioaren igoera.

Hala ere, zergadun bakoitzak datorren urteko OHZren fakturan ordaindu beharreko azken zenbatekoa udalak ekitaldi honetan onartzen duen tasaren arabera izango da.

Foru Ogasunak jabe bakoitzari jakinaraziko dizkio posta bidez bere ondasun higiezinaren katastro balio berriak. Halaber, foru bulegoetan bertaratuta ere jakinaraziko zaizkie, posta bidez egitea ezinezkoa izanez gero.